



Elkarbizitza nola berreraiki

ZAZPI PRESOREKIN ELKARRIZKETA

- Andoni Alza, Rafa Caride, Ibon Etxezarreta, Josu García, Carmen Gisasola, Kepa Pikabea eta Joseba Urrosolo

(Itzuli Ezinezko Bake Prozesuarekin Konprometitutako Presoak)

IRITZIAK

• Jonan Fernandez

• Sabino Ormazabal

• Kieran McEvoy



Irakurle, datozen urteetan, hemen irakurtzen dituzunak zure inguruan nolabait islatuak ikusten ez badituzu, gaizki ibiliko garen seinale. Hedabideetan jardun beharko da bizikidetzaz, plazan, eskolan, tabernan, etxeko otorduetan... Euskal herritarrok elkarbizitzarako gutxieneko batzuetan ados jarri garela, berradiskidetzea abian dela, ez dela berriz hilko autodeterminazioagatik, ez dela berriz torturatuko informazio bila edo izua barreiatzeagatik. Biktima eta sufrimendu guztiak, enpatia, memoria kritikoa, begirada prebentiboa... Horiek guztiak eta askoz gehiago entzun, jaso eta barneratu beharko ditugu egun bizi dugun bake prozesuak bide egiten badu. LARRUN honetan ez dira ikuspegi guztiak, baina bai elkarbizitza berriaren gako nagusiak.

Espetxe batera joz heldu diogu lehenik elkarbizitza eta bizikidetzaren gaiari, eta Langraizko espetxean diren zazpi presorekin egindako elkarrizketa kolektiboa ekarri dugu LARRUNeko orriotara. Eta hiru iritzi artikulua: Jonan Fernandez, Sabino Ormazabal eta Kieran McEvoy. Lehenengo biak gatazkaren lurraldetik ari dira, Euskal Herritik. Hirugarrena irlandarra da eta munduko hainbat berradiskidetze prozesu gertutik ezagutzen ditu: Ipar Irlandan eta munduan jazotako esperientzien berri luzatuko digu.

“Besteen sufrimendua ikusita, gu ere hunkitzen gara”

ELKARRIZKETATUAK

Andoni Alza Hernandez, Rafa Caride Simon, Ibon Etxezarreta Etxaniz, Josu García Corporales, Carmen Gisasola Solozabal, Kepa Pikabea Ugalde, Joseba Urrosolo Sistiaga.

Itzuli Ezinezko Bake Prozesuarekin Konprometitutako Presoak

Itzuli Ezinezko Bake Prozesuarekin Konprometitutako Presoak. Hala deitzen diote euren taldeari. Edozelako bake prozesuk aurrera egiten badu Euskal Herrian, presoena izango da gai arantzatsuenetakoa. Langraizko espetxera jo dugu eta zazpi presori egindako elkarrizketa kolektiboa da ondorengoa, LARRUNEK idatziz pasatako galdetegiari erantzundakoa. Gai biziki delikatua ETAKo kide izateagatik zigortu zituzten pertsonentzat. Berradiskidetzea nola dakusaten jorratu dugu haiekin. Iraganaz ere galdetu diegu haien kontzientziei. Eta baita egungo egoera politikoaz ere, presoen egoeraz, Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin izandako ika-mikez. Elkarbizitza berriaren zezenari adarretatik heltzeko prest daude.

Biktimen gaia eta gatazkak eragindako kalteei erantzun behar zaiela zenioten zuen iazko maiatzeko gutunean. Hasteko, zein da biktima zuen ustez?

Gure ustez, azken urte luze hauetan gatazka politikoaren ondorioak sufritu dituzten guztiak dira biktimak. Giza eskubideak oinarri, eskubide urraketak izan dituzten pertsona guztiak. ETAK eragindakoak, GALEK, Batallon Vasco Españolek eta horrelako taldeek eragindakoak, estatuko segurtasun indarrek eragindakoak, torturatuak izan direnak, bere iritzi politikoagatik, edozein aldetik izanda ere, irainak, bazterketa edo presio soziala sufritu dutenak... Tartean sartzen ditugu gure senideak, hainbeste urtetan guk hartutako bidearen ondorioak sufritu dituztenak. Biktimak ez dira bakarrik memoria egunean oroituak izan zirenak.

Bizi dugun bake prozesuak aurrera egiten badu, zer leku behar dute biktimek prozesu horretan?

Hasteko, gu ez gara pertsona egokienak hitz egiteko biktimek behar luketen lekuari buruz. Biktimei Bake Prozesuaren alde egin dezaten eskatzea bera ere asko eskatzea litza-teke. Baina eskertzekoa izan daiteke zauriak itxi eta elkarbizitzarako urratsak ematen hastea nahiz eta modu sinbolikoan izan.

Esaten dute biktimarekiko elkartasuna eta enpatia dela edozelako prozesuren hasiera eta

oinarria. Zuek nola bizi dituzue biktimekiko enpatia eta elkartasuna?

Besteen sufrimendua ikusita, gu ere hunkitzen gara. Baina egoera honetan nola adierazi barruan benetan sentitzen duguna? Ez da erraza. Hala ere, zauriak ixten laguntzeko urratsak ematen ari gara. Gatazka honek eragindako biktima guztiak, Euskal Herriko gizarte osoaren babesa eta hurbiltasuna laster sentitzea nahi genuke.

Zuek ETA kideak izan zineten eta haren ize-nean egindako atentatuengatik zaudete kartzelatan. Horietan pertsonak zauritu eta hil ziren. Zer esaten dizue zuen kontzientziak gertakizun haiei buruz hainbat urte ondoren?

Urteetan gainditu gabeko arazo nazionalak espresio politiko ezberdinak ekarri zituen 50eko hamarkadan eta horietako bat borroka armatua zen. Beraz, guk egin genituen ekintza armatuak ez genituen jarrera pertsonal batetik egin, jarduera kolektibo horren barruan baizik. Horrekin ez dugu gure ardura pertsonala zuritu edo apaldu nahi, ezta gutxiago ere. Baina gure erantzukizuna eta gure barruan sentitzen duguna ezin da ulertu jarduera kolektibo hori kontuan hartu gabe.

Gero, norberak baloratuko du eta nahi duen moduan adieraziko du egindakoaz gaur egun pentsatzen duena. Guk behintzat iraganaren berrikuspen kritikorako gure ekarpena egin nahi dugu. Horretan inplikatur, elkarbizitzaren aldeko urratsak emanez eta ahal dugun guztia eginez biktima gehiagorik izan ez dadin.

Zuek biktimarik eragin baduzue, zer esango zeniekete haien senitartekoei?

Uste dugu biktimen senitartekoei hitzak baino gehiago nahiago izango dutela ekintza armaturik gehiago ez gertatzea; bizi izan duten sufrimendua beste inork pairatu ez dezan. Horrexegatik, bakea lortzeko eginahalak egi-

“Besteen sufrimendua ikusita, gu ere hunkitzen gara. Baina egoera honetan nola adierazi barruan benetan sentitzen duguna? Ez da erraza. Hala ere, zauriak ixten laguntzeko urratsak ematen ari gara”

ten jarraitzea izango dugu beraien alde egin dezakegun ekarpenik handiena ez bairik gabe. Etorkizun itxaropentsu eta hobe bat nekez eraikiko dugu kaltetuak izan direnei gure begirunerik ez badiegu adierazten.

Nola hasi “elkar ulertzeko espazioak” eraikitzen?

Gatazka eragindako zauriak ixten joateko jarreraren alde gaudenok, gure herrirako behingoz elkarbizitza baketsu eta normaltasun politikoa nahi dugunok, zubiak eta topaguneak eraiki behar ditugu. Biktima guztien sufrimendua onartu eta elkarbizitza soziala izan behar da helburu.

Zentzu honetan, joan den azaroan Brouard eta Muguruzaren oroimen ekitaldian, bi ertzainen alargunen parte hartzea garrantzitsua eta eredugarria iruditu zitzaigun; eta geure buruan betiko galderak: noiz hasiko gara gu geure aldetik antzeko urratsak ematen? Gure aldetik ere norbait hasi beharko da. Gu prest gaude gai hauek jorratzeko, pertsona egokien bitartez, Euskal Herriko jende eta talde ezberdinekin bildu eta harremanetan jartzeko.

Bizikidetzarako, elkarbizitzarako, oso inportantea omen da, halaber, iraganaren berrikuspen kritikoa. Gatazkan parte hartu duen zuen aldeak zer berrikuspen kritikoa egin behar luke?


Guri dagokigunean, alegia, ENAMeko partaide izan garen neurrian, beharrezkoa da iraganaren berrikuspenean kritikoa egitea. Aurreko batean esan genuenez, ETak borroka armatuaren zikloa betirako itxiko duen egunean konturatu gara, beste herrialdeetako gatazken partaideak konturatu ziren legez, erabaki, akordio, edo urrats hori lehenago eman genezakeela. Ikuspuntu politiko batetik begi-bistakoa izango da zenbat denbora, kemen eta ilusio xahutu ditugun alfer-alferrik, estrategiaz lehenago ez aldatzeagatik. Zenbat aukera galdu dugun gatazka bideratzeko. Eta giza ikuspegitik, zenbat jende geratu den bidean, zenbat min eta sufrimendu eragin dugun gatazka armatu honetan parte hartu dugunok.

Presoak ere biktimak bilakatzen dira: sakabanaketa, preso gaixoak, Parot doktrina, asko torturatuak dira atxilo-aldian... Nola ikusten duzue, oro har, presoan egoera?

Egia da, presook bizi dugun egoera gogorra da, urte luzetako zigor izugarriez gain, sakabanaketa dela medio senideak ere gorriak pasatzen ari dira, urtetan zehar senideak ikusteko milaka eta milaka kilometro egitera behartuak. Bistan da sakabanaketa, tortura eta abarrekin amaitu beharra dagoela. Hamaika manifestazio egiten jarrai dezakegu eta ondo dago, baina bene-benetan presoan egoera konpondu nahi badugu, badakigu zein izango den giltza: borroka armatuaren amaiera.

Bizi dugun bake prozesu honek aurrera egingen badu, eta azkenean borroka armatuaren zikloa ixten bada, ETak biktimei begira zer egin beharko luke?

Irlandan IRAk egin zuen bezala, Euskal Herrian ere borroka armatuaren zikloa behingoz ixteko, ETAK bere ekintza armatuekin eragindako biktimak eta haien senitartekoei parrututako mina eta sufrimendua onartu beharko lituzke militante guztien izenean. Baita iraganeko akatsak eta besteengan eragindako kalte eta minak onartu ere.



Langraitzeko espetxea.

“Joan den azaroan Brouard eta Muguruzaren oroimen ekitaldian, bi ertzainen alargunen parte hartzea garrantzitsua eta eredugarria iruditu zitzaigun; eta geure buruan betiko galderak: noiz hasiko gara gu geure aldetik antzeko urratsak ematen?”

Preso batzuek publikoki agertu izan duzue argi zuen jarrera borroka armatuarekiko eta aspaldi ari zarete esaten ETAk armak utzi beharko lituzkeela. Horrek arazoak ekarri dizkizue beste preso batzuekin? Eta Presoen Kolektiboarekin?

Estrategia militarri buruzko kritika politikoa egin genuen eta horri, politikoki erantzun beharrean, irainez erantzun zigun Kolektiboa kontrolpean duen aparatua. Baina oso ondo dakigu preso askoren sostengua eta errespetua dugula.

Borroka armatua bukatu behar zela eta presoen eskubideak eskatu (Euskal Herriko kartzeletara hurbiltzea, gradu aldaketa, irteera baimenak...) eta biktimen gaia planteatzeagatik irain gogorrak jaso genituen. Orain, Batasunak eta Etxeratak Gernikako Akordioan guk aldarrikatzen genuena puntuz puntu sinatu dute.

Badirudi batzuentzat Presoen Kolektibotik aparte egiten bada damutze politikoa dela. Beraz, Kolektibo hori, Batasunak eta Etxeratak bezala, Gernikako Akordioaren estrategian erori da, eta bat egingo duenean damutze



“Egin dezagun urratsa”.
Presoen eskubideen alde urtarilaren 8an

kolektiboa izango da? Batasuna etsaiaren estrategian erori da alderdi politikoen legea onartzeagatik? Min ematen digute baina motibazio handiagoa aurrera jarraitzeko.

Espetxe erakundeetatik presoetara eskaintzen zaizkien abantailak onartzeagatik kritika gogorrak jaso dituzue Presoen Kolektibotik. Zer esan dezakezue?

Oso gogorrak, bai, eta betiko arinkeriak idatziz. Ñabardura txiki baina garrantzitsua, irain horiek presoen izenean idazten dutenen aldetik etorri dira.

Dena dela, argi esan behar da ez direla eskainitako abantailak, baizik eta, baldintza legal batzuk betez gero, preso guztiek dituzten eskubideak. Espetxean egondako edonork daki espetxe instituzioak ez duela ezer eskaintzen. Arantza Zulueta eta beste batzuen kasuan adibidez, espetxean bost edo sei hilabete egin ondoren kalean utzi dituzte, irtetea eskatu dutelako eta espetxetik jarri dizkieten baldintzak bete dituztelako. Baldintza horiek onartu ezean (dirua ordaindu, aktibitate politikoetan edo manifestazioetan parte ez hartzea onartu)



Bilbon egindako manifestazioaren kartela.

ez ziren espetxetik aterako. Hori bai, berak defenditu dituenek, espetxean 15, 20 edo 25 urte egin eta gero ezin dute baimen ziztrin bat eskatu.

Duela gutxi arte, preso gaixoek ez zuten kontrolpeko eskumuturra onartzerik kartzelatik irteteko. Penagarria zen ikustea nola esaten zitzaaien ezin zirela baldintza horietan kartzelatik atera. Eskerrak batzuek ez zutela jaramonik egin eta kartzelatik ateratzen hasi ziren. Haiei esker, gero beste batzuk horrela atera dira eta orain eskumuturrekoarekin ateratzea garaipen gisa azaltzen da.

Hamaika kontraesan aipa genitzake, baina ez gara inoren jokoan eroriko. Gernikako Akordioan eskatzen dena azpimarratu nahi dugu: baldintza legalak betetzen dituzten presoek baldintzapeko askatasuna eta beste onura batzuen eskubidea dute. Baina onura horiek preso bakoitzak eskatu behar ditu, bis a bisak edo telefono deiak eskatzen diren moduan.

Horrek zuei eta zuen senideei ere eragin izan dizuela aipatzen zenuten. Zer eratako eragina?

“Bistan da sakabanaketa, tortura eta abarrekin amaitu beharra dagoela. Hamaika manifestazioa egiten jarrai dezakegu eta ondo dago, baina bene-benetan presoan egoera konpondu nahi badugu, badakigu zein izango den giltza: borroka armatuaren amaiera”

Gure senideei hainbeste urtetan presoan sostengurako mugimenduan ibili ondoren, oso gogorra egin zaie herrietan gure argazkiak kentzen ikustea, edo laguntza juridiko eta ekonomiko barik utzi gaituztela jakitea, nahiz eta herriari elkartasuna eskatzen zaionean, preso guztion izenean egiten den. Penagarria deritzogu horrelako gutxi batzuen jarrera sektarioak ikustea.

Badakit oso galdera orokorra dela, baina laburbilduz, nola ikusten duzue une honetan Euskal Herriko egoera politikoa?

Espetxetik begiratuta azkenaldian gauza asko nahasten direla ematen du. Hemendik lau hilabetera Hego Euskal Herrian hauteskundeak izango dira. Hasiera batean, gizartearentzat positiboa dena, udalak, foru aldundiak eta Nafarroako Parlamentua berritzea, badirudi prozesurako kaltegarria bihurtzen dela.

Gernikako Akordioa ez da hauteskundeei begira egindakoa, borroka armatuaren zikloa ixteko tresna egokia baizik. Hauteskundeak dira eta prozesua prozesua da. Bi kontzeptu hauek nahastean lortzen den



Preso gaixoak askatzeko Langraitzeko espetxera egindako martxa bati preso batek egindako agurra.

bakarra, akordioaren garrantzia gutxiestea da. Bestalde, sinatzaileei ekintza zehatz, sinesgarri eta zuzenak eskatu behar zaizkie, Alternatiba Demokratikoa, Lizarra-Garazi, Anoeta eta Loiolako akordioekin bezala, oroitzapenen kutxan buka ez dadin.

Eta zehazki, nola ikusten duzue une honetan bake prozesua?

Galdera honi erantzuterakoan oraindik ETaren agiriaren zain gaude. Gure ustez, gehiago luzatu gabe, borroka armatuaren etapa modu ofizialean itxi behar da, behin betiko dela eszenifikatuz. Hori nola gauzatuko den arabera izango dute hurrengo urratsek garrantzia. Gizartean elkarbizitzarako giro berri bat

“Arnaldo [Otegi] espetxean ez da mugatu kanpokoan zain egotera eta urratsak eman ditu, bere iritziak prentsan argitaratuz, epaileen aurrean indarkeria arbuiatuz, egoera politikoa aldatu dela argudiatu du bere askatasuna eskatuz... Eta hori da bidea: inplikazioa”

sortzeko, preso eta iheslarien gaia seriotasunez konpontzen hasteko, arazo politikoak talde politikoaren artean konpontzeko, funtsezkoa da borroka armatuaren bukaera lehenbailehen eta sinesgarritasunez amaitzea.

Nola parte har dezakete presoek bake prozesuan?

Begira, kartzela ezberdinetako patioetan egoera politikoaz behin eta berriro bueltaka ari ginela, eztabaida bero eta apaingarririk gabekoetan, hauxe esaten genuen: imajinatzen duzue hemen esandakoak gizartean entzungo balira... jendeak sekulako poza hartuko luke. Benetan pentsatzen duguna, anbiguotasunik gabe, ulerterraza eta sinesgarria dena, hori baita behingoz jendeak entzun nahi duena; beraz, presoek pentsatzen duguna beldurrik gabe praktikan jartzea izango litzateke presoen benetako ekarpena.

Irlandan adibidez, irteera baimenak eskatzen zituzten bake prozesuaren aldeko batzarretan parte hartzeko, jendea konbentzitzeko, eragile sozial eta politiko ezberdinekin harremanetan jartzeko... Baina horretarako, orain

arteko tabuak eta dinamikak gainditu behar dira. Gernikako Akordioan presoek dagozkien puntuak gauzatzen hasteko ezinbestekoa baita presoen inplikazioa, guri dagokigulako akordio horretan aipatzen diren presoen eskubide guztiak edota askatasun kondizionala eskatzea.

Nola ikusten dituzue euskal preso politikoak prozesu honen aurrean?

Presoen artean, eta beraien inguruan mugitzen diren batzuen artean, oraindik ere Mugarriz ildoa (borroka armatua mantentzearen aldekoak) bultzatzen ibili dira. Beste batzuk, aldiz, lagun eta senideen bitartez beraien iritzia zabaltzeari ekin zioten eta horrek eragina izan du Batasunak herriz herri egindako batzarretan. Baina orokorrean presoak zain daude ea borroka armatuaren bukaera behingoz gauzatu den, eta ea kalean ziklo berriaren aldekoek presoek inplikazioa eskatzen dieten urratsak ematen hasteko...

Gure ustez, Godot noiz iritsiko zain daudenak erratzen dira, presoen inplikazioa beharrezkoa baita. Adibidez, Arnaldo [Otegi] espetxean ez da mugatu kanpokoaren zain egotera



ALEX LARRETXI

Langraitzeko espetxearen irudi orokor bat.

“Irlandan, irteera baimenak eskatzen zituzten bake prozesuaren aldeko batzarretan parte hartzeko, jendea konbentzitzeko, eragile sozial eta politiko ezberdinekin harremanetan jartzeko...”

eta urratsak eman ditu, bere iritziak prentsan argitaratuz, epaileen aurrean indarkeria arbuaituz, egoera politikoa aldatu dela argudiatu du bere askatasuna eskatuz... Eta hori da bidea: inplikazioa.

Zer esango zenioke ETAn sartu nahi duen gazte bati?

ETA barrutik ondo ezagutzen duten militanteek (salbuespenak salbuespen) beren seme-alabei benetan esan dietena: mesedez ez sartu ETAn. Batzuek gaurko ETAn inolako konfiantzarik ez dutelako, besteek ETAn borroka armatua bukatutzat ematen dutelako, beste batzuk arrazoi etikoengatik borroka armatuaren alde ez daudelako edo ikuspegi egoistago batetik, ez dituztelako beraien seme-alabak borroka armatuaren gurpil zoroan sartuta ikusi nahi... denetarik dago.

Askotan esaten da 50 urte iraun duen borroka armatua ez dela egun batetik bestera desagertuko, denbora behar dela.

Hori aitzakia hutsa da. Urteak eta urteak pasatu ditugu horrelakoak esaten. Lehen, “negoziatzen hasi aurretik erakundea indartu behar dugu” izaten zen aitzakia. Orain, ez indartu, ez negoziatu, orain bukatuta dagoena bukatutzat emateko denbora behar omen da. Ez da egia. Denbora beharko da borroka armatua bukatutzat eman ondoren gelditzen diren arazoak konpontzeko, baina ez borroka armatuarekin amaitzeko.

Hori, orain arte bezala, gutxi batzuen artean erabakiko da. Aljerren bi izan ziren jarraitzea erabaki zutenak, Lizarra-Garazi garaian dozena erdi bat eta Loiolan beste dozena erdi bat. Zoritxarrez horrela da. Eta haiek egoera gehiagorik luzatzearekin tematzen badira, Ezker Abertzalean erabakitzeke gaitasuna dutenei dagoen etapa horri bukaera ematea. Ez da hain zaila gizartean, herriz herri egindako eztabaidetan eta militantziaren gehiengoaren nahia hori dela; beraz, orain, gutxi batzuen borroka eta ausardia behar da, besterik ez.

Estrategia militarri buruzko kritika politikoa egin genuen eta horri, politikoki erantzun beharrean, irainez erantzun zigun Kolektiboa kontrolpean duen aparatua. Baina oso ondo dakigu preso askoren sostengua eta errespetua dugula.



Berradiskidetzea: baldintza etikoak



Jonan Fernandez*

Bizikidetzaren berreraikuntza, berradiskidetzea da eskolan biktimekiko elkartasuna jorratzeko testuingurua.

Hona hemen baieztapen horren aldeko arrazoiak:

- Enpatia eta elkartasuna hedatzeko ahalegin pedagogikoaren balio sozialei eta unibertsalei erabateko zentzua eta osoko ikuspegia ematen die berradiskidetzeak;
- Indarkeria- eta zatiketa-aldi baten ostean, gizar-tearen egungo eta geroko asmo konstruktiboekin bat egiten laguntzen dio eskolari;
- Berradiskidetzeak berez eskatzen ditu oinarrizko adostasun sozialak. Adostasun horiei esker, eskolatik kanpora uzten dira muturreko jarrerak edo sufrimenduaren erabilera alderdikoak;
- Mundu hobea eraikitzen laguntzen du, oro har; geurean, berriz, helburu sozial eta demokratiko bati (berradiskidetzeari, bizikidetzari) laguntzen dio;
- Bakezko bizikidetzaren da biktimei egin dakiekeen elkartasun-oparirik onena. Zatiketak biktimizazioa areagotzen du; elkartasunak, aldiz, berradiskidetzea sustatzen du.

Berradiskidetzea dugu berariazko elkartasun horren erreferentzia-eremua. Baina horrelako prozesu batek badu ezaugarri edo baldintza oso zorrotz bat: partekatua izan behar du, nahitaez. Prozesuaren bideragarritasunak ezinbestekoa du baldintza hori. Partekatzeko, lehenbizi, ideia bat, kontakizun bat, berradiskidetze-konzeptu bat azaldu behar zaie alde guztiei. Horretaz jardungo gara, hain justu. Kontzeptu horrek hamar baldintza etiko ditu (berradiskidetzeari buruzkoak guztiak), eta kontuan hartu behar dira eskolan biktimekiko elkartasuna jorratzean.

1. Definizioa: elkar errespetatzea eta onartzea

Indarkeriak, zatiketak eta gatazka suntsitzaileak kolpatutako garai baten ostean, berradiskidetzaren bidez berreraikitzen da bizikidetzaren, elkarrenganako errespetua eta onospena oinarri direla. Horrek ez du esan nahi lehen aurkari zirenak orain adiskide izango direnik, baizik eta elkar errespetatuko eta onartuko dutela berriro.



2. Subjektua: gizartea

Gizartea eta haren ordezkariak dira berradiskidetzearen subjektuak. Berradiskidetzea ez da biktimei eginkizuna, gizartearena baizik. Biktimek prozesu horren onuradun izan behar dute, ez erantzule.

3. Helburuak: ordaintzea, humanizatzea eta adiskidetzea

Hainbat helburu uztartzen ditu berradiskidetze prozesu batek, guztiak ere garrantzitsuak eta elkarri lotuak baina eragin-eremu desberdinekoak.

- **Biktimei dagokionez, ordaintzea da premiazko helburua.** Biktimei eragindako kaltea aitortu, arindu eta ordaindu egin behar da.
- **Gizarteari dagokionez, humanizatzea da premiazko helburua.** Gizartean sortutako hausturak eta zatiketak konpondu egin behar dira, gorrotoak eta aurreiritziak ezabatu, eta errespetua, elkarren onospena eta elkarrizketa sustatu.
- **Adiskidetzea da helburu politikoa eta estrategikoa.** Bakezko bizikidetzaren sendotze behar da, printzipio demokratiko hauetan oinarritua: justizian, askatasunean, berdintasunean eta bakean.

4. Estrategia: begirada berri bat orainari, iraganari eta geroari

Berradiskidetze-prozesu bateko helburuak lortzeko bidea edo estrategia hau da: iraganaz, orainaz eta geroaz jarduteko modu berri bat partekatzea. Kontua ez da denok ikuspegi bera izatea, baizik eta beste era batera begiratzea iraganari, orainari eta geroari, hau da, ikuspegi kritikoa aztertzea iragana, ikuspegi konstruktiboaz oraina, eta ikuspegi prebentiboaz geroa. Hiru denbora horiek ditugu berradiskidetze-prozesuaren ardatzak.

5. Lehen ardatza. Iragana: begiratu kritikoa eta ordaina

Bi eginkizun: aitortza eta berrikuspena. Iraganera begiratzeak gertatutakoa elkarrekin aztertzea dakar, eta bi gauza eskatzen ditu: biktimei egindako kaltea ezagutzea eta aitortzea, eta iraganaren berrikuspen kritikoa. “Egiaren txostena” edo “Inoiz gehiago ez” deritzen txostenetan gauzatzen dira berradiskidetze-prozesu horiek. Alde guztiek adostutako pertsona edo erakunde batek egin behar ditu txosten horiek, erabateko ordaintze-prozesu baten oinarri izan dadin. Iraganera begi berriekin begiratzea da faserik delikatuena, zauriak berriro irekitzen baititu. Beraz, hiru irizpide hauek (gutxienik) izan behar dira kontuan:

- **Sufrimendu guztiak hartu behar dira aintzat.** Biktima guztiei egindako kaltea ezagutu eta aitortu behar da, ez geure hurbileko sentitzen ditugunena bakarrik. Hortxe dago, hain zuzen ere, berradiskidetze-prozesu baten bideragarritasuna edo porrota eragin dezakeen gakoa, banalerroa. Lerro hori zeharkatzen bada, berradiskidetzea ezinezkoa da, eta, gainera, gatazka berriak sortzeko oinarriak ipintzen dira.

Zorrotza izan behar du iraganaren berrikuspen kritikoa

Iraganaldi osoaren berrikuspen kritikoa egin behar da, ez bakarrik norberari komeni zaiorenarena. Euskal auziari dagokionez, ETak (adar batzuek eta besteek) eragin ditu hildako gehien 1960ko hamarkadaz geroztik. Berariazko balorazioa egin behar da horretaz. Dena den, biktima guztiak ez ditu ETak eragin; beraz, horiek eta horien sufrimendua ere eskubide osoz txertatu behar dira berradiskidetze-prozesuan. ETaren terrorismoarekin batera, estatuaren ingurukoa edo eskuin muturreko terrorismoa ere hartu behar da kontuan, baita tortura, polizia gehiegikerien eta giza eskubideen beste urraketa batzuen biktimak ere.

- **Adostasunak eta desadostasunak egon daitezke iraganari buruzko diagnostikoan.** Gertatutakoa interpretatzeko modu bat baino gehiago egongo direla onartu beharra dago. Ezinezkoa da diagnostiko politiko partekatua egitea. Diagnostiko partekaturik ez dagoela, hori da diagnostikorik partekatuena. Dena dela, berriro inoiz gertatu

behar ez duenaz (“Inoiz gehiago ez”) ados jar daitezke aldeak, eta jarri behar dute. Badago gutxieneko adostasun baterako lehengairik: “Giza duintasunaren aurretik beren kausa edo helburua jarri zuelako zenbaitek gertatu zen gertatu zena. Kalteak ordaintzeko konpromisoa eskatzen du horrek. Inongo kausa politikok, inongo alderdiren helburuk, inongo estatu-arrazoik ez dute balio absoluturik, gizakiari eta bizitzari zor zaion errespetuaren gainetik jartzeko modukorik”.

6. Bigarren ardatza. Oraina: begirada konstruktiboa eta enpatia

Ezinbesteko bi baldintza: errespetua eta onespena. Orainari dagokionez, ezinbesteko bi baldintza bete behar ditu berradiskidetze-lanak prozesu konstruktibo bati ekiteko: desberdintasuna onartu egin behar da, eta giza duintasunaren bortxaezintasuna errespetatu. Horra bizikidetzaren berri baten abiapuntuak, gertatutakoa berriro ez gertatzeko konpromisoan gauzatzen direnak. Orainari ekiteko modu berri horretan, autokritika- eta barkamen-adierazpenak edo eskakizunak erabakigarriak dira berradiskidetze-prozesua sendotzeko. Oraina da biktima guztiekiko enpatia partekatua garaia, egindako kaltea aitortzekoa eta ordaintzekoa, elkartasun afektiboa eta eraginkorra adieraztekoa. Kontuan izan beharreko hiru gauza:

- **Barkamenak borondatezkoa izan behar du.** Barkamena eskatzea edo barkatzea ez da derrigorrezkoa; alabaina, autokritika egitea, barkamena eskatzea eta barkatzea jarrera erabakigarriak izaten dira berradiskidetze-prozesuak sendotzeko. Horra barkamenaren paradoxa: ez da berradiskidetze-prozesua abiarazteko baldintza ezinbestekoa, baina erabakigarria izan daiteke. Borondatezko autokritika- edo barkamen-adierazpenak egiteko giroa sortu behar du, hain zuzen ere, berradiskidetze-prozesuak.
- **Ezinbestekoa: berriro ez gertatzeko konpromisoa.** Autokritika eta barkamena komenigarriak eta lagungarriak dira. Berradiskidetze-prozesu bati ekiteko, nahitaezkoa da iraganeko jazoerak ez errepikatzeko konpromisoa. Bi printzipio demokratiko bete behar dira (inongo zalantzarik gabe, gainera) berradiskidetze-prozesu bat partekatze-

“Gure iritziz, ‘euskal gatazkako giza eskubideen urraketen biktimak’ da deitura orokor egokia. Izendapen horretan sartzen dira ETAREN terrorismoaren biktimak, estatuaren inguruko terrorismoaren biktimak, eskuin muturrekoak eta giza eskubideen beste urraketa batzuenak”

ko: desberdintasuna onartzea eta giza duintasunaren bortxaezintasuna errespetatzea.

- **Indibiduala izan behar du iraganaren kritikak edo autokritikak.** Oso zabaldua dago iraganaren kritika kolektiboa egiteko joera, gizarte osoari edo haren zati bati etiketa edo desondra jakin bat ezartzekoa. Akats larria deritzogu joera horri, bi arrazoiengatik: norberaren autokritika egiteko martingalatzat erabiltzen delako, batetik; bestetik, erantzukizuna indibiduala delako, beti, eta orokortzeak manipulazio interesatuak ekar ditzakeelako, bidegabekoa izateaz gain. Gizon-emakume edo erakunde bakoitzak egin behar du iraganaren kritika eta autokritika, baina sekula ere ez gaitzespen kolektibo gisara. Autokritikak galdera hauei erantzun behar die: “Zer egin edo esan nuen nik?”, “Zer esan komunikabide, alderdi, mugimendu sozial, erakunde... honek?”.

7. Hirugarren ardatza. Geroa: begirada prebentiboa eta heziketa

Gizatasuna, eskuzabaltasuna eta apaltasuna eskariei dagokienez. Geroari begira, berradiskidetze prozesuak begirada prebentiboa behar du, gizatasuna, eskuzabaltasuna eta apaltasuna eskariei dagokienez. Inoiz gertatu behar ez zuen hura berriro gerta ez dadin neurriak hartzeko konpromisoa eskatzen du prozesuak. Batez ere bi eremu hauei

“Kontua ez da denok ikuspegi bera izatea, baizik eta beste era batera begiratzea iraganari, orainari eta geroari, hau da, ikuspegi kritikoaz aztertzea iragana, ikuspegi konstruktiboaz oraina, eta ikuspegi prebentiboaz geroa”

eragiten die konpromisoak: bizikidetzaren eta heziketaren oinarriei.

- **Elkarrekin bizitzeko hezi.** Hezkuntzan, irizpide hau erabili behar da: “Zaindu beharreko baliorik gorena bakezko bizikidetzaz balitz bezala hezi ditzagun beti ikasleak”. Giza duintasunaren etika eta hari dagozkion ikaskuntzen eta balioen ezagutza, esperientzia, errespetua eta sustapena oinarri dituen hezkuntza-proiektua garatu behar da horretarako.
- **Hezteko, elkarrekin bizi.** Bizikidetzan, irizpide hau erabili behar da: “Lortu beharreko helbururik gorena geure seme-alabei azken heziketa-herentzia uztea balitz bezala jardun gaitezten bizikidetzaz gatazka guztietan”. Irizpide hauez baliatzea eskatzen du ikuspegi horrek: denak barne hartzea eta inor kanpoan ez uztea; elkarrizketa eta negoziazioa, dogmatismoaren eta indarkeriazko ezarpenaren ordez; askatasuna, berdintasuna eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko giroa, oinarritzko eskubideen eta askatasunen urratzearen ordez.

8. Epeak: batere murrizketarik gabe abiapuntuan, eta presarik gabe amaieran

Entzun. Epeak eta uneak garrantzitsuak izaten dira berradiskidetze-prozesuetan: “Noiz hasi zen dena; noiz amaitu behar du berradiskidetze lanak?”. Irizpide orokorra: entzutea, aurrez ezer ez finkatzea.

- **Abiapuntu irekia.** Ez da gauza erraza aldeak ados jartzea honetan: noiz hasi zen, zehazki, berradiskidetze prozesuari dagokion injustizia- eta sufrimendu-garaia. Zaila da, kausari eta efektuari buruzko eztabaida segituan pizten baita. Euskal auziari dagokionez, biktimei buruzko azken legeak dio 1960 izan zela hasiera-urtea (aurreko legeek 1968 aipatzen zuten). Erreferentzia ona da. Dena den, berradiskidetze-prozesu bat abiaraztean, komeni da epe irekiak ezartzea, alde aurretik data jakin batera ez murrizteko egia bilaketa eta eragindako kalteen ezagutza. Iraganaren ikerkuntza kritikoa eginda eta biktimek diotena entzunda finkatu behar da injustizien hasiera data. Euskal auzian, 1960ko hamarkadaren hasiera izan daiteke gutxi gorabeherako hasiera-data.
- **Garaiz hasi, baina presaka ez amaitu.** 50 urte igaro dira 1960tik 2010era. Epe luzea eta konplexua da; beraz, ez da komeni presakako ondorio-rik ateratzea. Berradiskidetze-prozesuak lasaitasun- eta segurtasun-giroa behar du, indarkeriaren mehatxutik eta giza eskubideen urraketetik at, eta uruntasun pixka batekin begiratu behar dio iraganari. Zuhurtziazko ikuspegi hori ez dator bat gatazka guztietan ageri den joera honekin: gertatukoari buruz bere bertsioa ezartzeko presa handia izaten dute alde guztiek. Amaiera interesatua da hori; izan ere, presarik eta etenik gabeko prozesua behar du izan berradiskidetzeak, eta alde guztiei entzunez saiatu behar du egia aurkitzen.


9. Biktimak

Lagundu, kalte egin beharrean. Gizakia da berradiskidetzearen azken helburua. Berradiskidetzeak erantzun positiboa, konstruktiboa eman behar die, gatazka soziopolitikoei ez ezik, iraganeko injustiziek gizon-emakumeei eragindako oinazei, batez ere. Biktimak dira subjektu nagusia, alde horretatik. Biktimei laguntzea, kalterik ez egitea, lantegi delikatua da, eta zenbait gauza azpimarratzea eskatzen du.

- **Inor baztertzen eta ezkututzen ez duen deitura erabili.** Berradiskidetze-prozesua integratzailea izan dadin, erabakigarria da biktimei deitura egokia ematea. Sufrimendu-mota bat bera ere ez baztertzea, ez ezkutatzea da irizpidea. Horretarako, biktima guztiak aintzat hartzen dituen eta kasu

bakoitzeko deitura espezifikoekin bat datorren deitura bat bilatu behar da. Gure iritziz, 'euskal gatazkako giza eskubideen urraketen biktimak' da deitura orokor egokia. Izendapen horretan sartzen dira ETaren terrorismoaren biktimak, estatuaren inguruko terrorismoaren biktimak, eskuin muturrekoak eta giza eskubideen beste urraketa batzuenak.

- **Biktimizazioa gainditzen lagundu.** Biktimizazioa (erasoak biktimaren bizitzan uzten duen blokeo suntsitzailea) gainditzea du garrantzizkoena biktimak, erasoak eta erasotzaileak lapurtu dioten burujabetza berreskuratzea, bere bizitza bere oinazea baino garrantzizkoagoa dela ohartzea... Zeregin horren etsairik handiena biktimismoa da, hots, biktima-izaera beste edozeren gainera jartzera bultzatzen duen guztia. Biktimizekiko elkartasun-mugimenduak kontuan izan behar du hori, biktimismoa ez sustatzeko eta biktimen burujabetza berreskuratzen laguntzeko, biktimizazioaren blokeoari aurre eginez (hurrengo puntuan berariaz jorratuko dugu ikuspegi hori)
- **Biktimen eskubideei buruzko iguripen faltsurik ez elikatu.** Biktimen osasuna eta susperraldia bultzatzeko, haien eskubideei buruz garbi hitz egin behar da, eta ez da sortu behar —ezta elikatu ere— iguripen faltsurik. Sinetsarazten bazaie edo zertarako eskubidea dutela, edo eskakizun politiko jakin batzuk egin ditzaketela, sekula iritsiko ez zaien ordain baten zain geratuko dira biktimak, sufritzen. Hiru eskubide nagusi dituzte biktimizek: eskubide morala (jasan duten kaltea aitortzea); eskubide materiala (ordaina eman diezaietela), eta eskubide politikoa (iraganaren berrikuspen kritikoa egin dadila). Horra gizarteak eta berradiskidetze-prozesuak biktimizekiko dituen hiru eginkizun nagusiak. Ez gehiago, ez gutxiago. Argi hitz egitea osasungarria da.
- **Adostu, ez manipulatu.** Bereizten gaituenaren gainera batzen gaituena bilatzea bereziki garrantzitsua da biktimizekiko elkartasunari dagokion guztian. Zatiketak eta sufrimenduaren manipulazio alderdikoak ez dute laguntzen biktimizazioa gainditzen edo biktimismoa uxatzen; aitzitik, luzatu egiten dute, sakonagoak eta suntsitzaileagoak bihurtzen dute.



2008ko apirilean biktimen omenez Eusko Legebiltzarrean inauguratu zen Cristina Iglesiasen monumentua.

10. Erantzukizun pertsonala da berradiskidetzea

Eginkizun kolektiboa da berradiskidetzea, baina norberaren konpromisoa eskatzen du batez ere. Prestatu egin behar da berradiskidetzea, eta geure buruak prestatu egin behar ditugu berradiskidetzeko. Gutako bakoitzari dagokigu tentsio horiei norabide konstruktiboa ematea.

- **“Gutarrak” bakarrik, edo “gutarrak” “besteekin”.** Besteei, haien arazoiei eta historiari tokia egitea eskatzen du berradiskidetzeak; mugatuak izaki,

“ Bizikidetzea berreraikitzeak esan nahi du batzen gaituenari eman behar diogula lehentasuna, nortasun guztiek libre adierazteko eta garatzeko eremu bat aurkitzeko, baldintza bakarrak giza eskubideak errespetatzea eta gizartearen atxikimendua (librea eta borondatezkoa) direlarik”

“Hiru eskubide nagusi dituzte biktimek: eskubide morala (jasan duten kaltea aitor diezaietela); eskubide materiala (ordaina eman diezaietela), eta eskubide politikoa (iraganaren berrikuspen kritikoa egin dadila). Horra gizarteak eta berradiskidetze-prozesuak biktimekiko dituen hiru eginkizun nagusiak”



LANDER ARBELAIZ

arrazoi osoa ez dugula aitortzeko apaltasuna eskatzen du, eta eskuzabaltasuna “besteen” arrazoia onartzeko. Gertatutakoari buruz egia eta bertio bakar bat ez dagoela onartzen ikastea eskatzen du berradiskidetzeak. Iraganaren diagnostikoa ez da aldebakarra. Besteen ikuspegi politikoak onartzea eta errespetatzea eskatzen du berradiskidetzeak.

- **Sufrimenduari buruzko egia: alde bakarrekoa edo alde ugariakoa.** Aipatutako guztia gorabehera, objektibotasunez azter daitezke gertakariak eta ikuspegi kritikoz berrikusi behar dira, egia zerbitzura jarduteko asmoz. Berradiskidetze-prozesu orotan, jasandako sufrimendu eta injustizia guztiak hartu behar dira aintzat lehenbizi. Ezin da bizikidetzaz eta berradiskidetzeaz konpromisorik hitzartu sufrimenduaren egia jakiteko eta aitortzeko berariazko borondaterik ez badago. Gutako bakoitzari dagokionez, “besteen” sufrimendua aitortzeko prest egotea eskatzen du horrek, sufrimendua ez dela alde bakar batena izan aitortzea, alde guztiena baizik.
- **Nortasuna eta adostasuna.** Adiskidetzeak, bizikidetze berreraikitzeak ez du esan nahi norberaren nortasuna alde batera utzi behar denik adostasuna

na lortzeko. Esan nahi du batzen gaituenari eman behar diogula lehentasuna, nortasun guztiek libre adierazteko eta garatzeko eremu bat aurkitzeko, baldintza bakarrak giza eskubideak errespetatzea eta gizartearen atxikimendua (librea eta borondatezkoa) direlarik. Elkarrekin bizitzeko gutxieneko betekizun demokratikoak adostea, batetik; eta, bestetik, gizartearen gehiengoaren borondatea errespetatzea, horiek dira eremu horretan aritzeko baldintzak.

- **Motibazioa: etika edo alderdikeria? Helburua: bizikidetze edo mendekua?** Ez da erraza berradiskidetze-prozesu bateko partaide aktiboa izatea, gizaki eta talde bakoitzeko alderdirik onenak eta txarrenak azaleratzen baititu iraganari eta bereizi gaituen horri begiratzeak. Komeni da norberak jorratzea motibazioa eta helburua. Motibazioa “Nondik?” galderari dagokio: “Etikak, elkartasunak bultzatzen nau, ala interes alderdikoiak?”. Helburua, berriz, “Zertarako?” galderari dagokio: “Bizikidetze berreraikitzea da neure benetako asmoa, ala mendekua?”.

* Jonan Fernandez,
Arantzazu Baketik Fundazioko zuzendaria.

Adiskidetzeari buruzko 25 gogoeta



Sabino Ormazabal*

Testu hau aldizkarira bidali dudan egun berean jakin dugu ETaren adierazpenaren berri. Badirudi prozesu honek luze joko duela eta beraz, aurrera begiratzea komeni da, adiskidetzearen bidea ondo egin ahal izateko.

Adiskidetzea?

1. Adiskidetzeak ez du esan nahi biktimek eta erasotzaileek adiskide bihurtu behar dutenik. Helburu nagusia gizartean harremanak berreskuratzea eta sendatzea da.
2. Zauriak itxi, eta suntsitutako zubiak berreskuratu behar dira. Eta “bestea” ere gizakia dela onartu. Bai, bestea ulertzean dago gakoa. Ez dugu derrigor adiskide izan behar. Eta ezin da adiskidetze prozesua behartu.
3. Baina bai barkamenaren kultura indartu. Eta barkatzea edo barkamena eskatzea norberaren kontua da. Ezin zaio inori exijitu. Oso itxaropentsuak iruditu zaizkit Montse Lezaunen hitzak (ETAk 2009an Mallorkan eraildako Diego Salvá guardia zibilaren ama da Montse): “Hasiera-hasieratik barkatzeko erabakiak on handia egin dit. Ez dut arrangurarik, gorrotorik. Baina goizero berritu behar izaten dut erabaki hori” (*El Correo*, 31/07/2010). Jarrera positiboak azpimarratu behar ditugu.
4. Barruko bakea ez da mendekuaren bidez etorriko. Ezin ditugu honelakoak onartu: “ustel daitezela espetxean”, “sufritu dezatela nik sufritu dudana”, “lege gogorrakoak behar dira”... Barruko min hori eraldatu nahi badugu, kanpoan ere bakerako, justiziarako eta elkarbizitzarako bideak eraiki behar ditugu.
5. Hori bai, egindako mina eta sufrimenduaren errekonozimendua exijitu beharko litzateke.
6. ETAk barkamena eskatu beharko luke egindako min guztirengatik: hildakoak, zaurituak, estortsioa, 1.500 umezurtz, betirako ezintasunez geratutako pertsonak... Nire kalkuluen arabera, ETAko adarrek, Iraultzak eta Komando Autonomoek eragindako 343 biktima zibiletatik, 151 hildako “kolateralak” ez ziren zuzenean atentatuen helburu izan. Hildako emakume horietatik hiru haurdun zeuden, eta 16 oso gazteak ziren (15 urtetik beherakoak)... IRAk, adibidez, 2002ko uztailaren 16an barkamena eskatu zuen berak egindako atentatuetako biktimengatik.

“Argazki globala behar dugu, osoa. Urraketa eta biktima guztiak jasoko dituen. Giza eskubideen urraketa mota, kategoria eta patroia guztiak adieraziko dituen. Diskriminaziorik gabekoa, politika publiko inklusiboa egin ahal izateko. Inor baztertu gabe. Biktima guztien zerrenda ofizial konpartitua behar da, eta horrekin bat egingo duen legea”

7. Baina ETA ez da entitate abstraktua. Historian jende asko igaro da bertatik. Baita gaur egun bestelako erakunde edo siglapean dabilzan pertsona asko ere. Eta erakunde horren erantzukizun osoa ez dago soilik nazionalismoaren munduaren baitan, behin eta berriro modu interesatuan errepikatzen den bezala.
8. Estatu espainiarrak, bestetik, giza eskubideen urraketa ugariren erantzukizuna hartu beharko luke bere gain. Iturri batzuen arabera 6.000 eta beste batzuen arabera 9.500 pertsonak salatu dituzte torturak. Estatuak berak eragindako kaltearen dimentsio soziala onartu beharko luke, bai zuzenean eragindakoa (motibazio politikoa duten biktimak, inpunitatea, ez ikertzea, kondekorazioak...), baita zeharkakoak ere (talde parapolizialak, emandako estaldura...).

Batzuek irabazi eta besteek galdu?

9. Helburu nagusia iraganeko akatsak ez errepikatzea izan beharko luke. Horretarako, gatazkak jorratzeko bide humano eta bidezkoagoak beharko lirateke. Jonan Fernandezek esan ohi duen bezala, norbaitek irabaztekotan, irabaz dezala elkarbizitzak, eta galdu dezala indarkeriak.
10. Guztion lana izango da hurrengo konfrontazioak indarkeriarik gabe bideratzea. Indarkeria mota guztiak baztertu beharko dira.
11. Irlandan, adibidez, loialistak eta errepublikarrak elkarrekin ari dira *Bridge of Hope* programan lanean, bi komunitateen arteko zubiak eraikitzen, etorkizun konpartituari begira, bakoitzak bere ideiei uko egin gabe, baina elkarrekin bakearen alde.
12. Hemen, berriz, batzuek garaipen militarraz gain, garaipen doktrinala eta elektoralak eskatzen dute (Arteta, *El Correo* 2010/01/06). Ez da hori bidea. Nork erabakitzen du zer defenda daitekeen politikaren bidetik eta zer ez? “Berrogeialdi” elektoralak proposatzen dutenek gauza bera egin al zuten Francoren heriotzaren ondoren? Hauteskunde erabakigarri haietan baldintzak berdinak izan al ziren guztientzat?
13. Autodeterminazio eskubidea ere “berrogeialdian” jarri behar omen da. Ez omen da komeni autodeterminazioa orain eskatzea. Beraz, uko egin behar ote diete AB, Alternatiba, Aralar,



LANDER ARBELATZ

Batzarre, EA, EAJ, EKA, EPK, Ezker Batua Berdeak, Ezker Abertzalea, Zutik, gehiengo sindikalak eta beste hainbatek erabakitzeke eskubideari? Eusko Legebiltzarrak berak ere uko egin behar ote dio 1990ko otsailaren 15ean onartutako erabakiari? Zer nazioarteko zuzenbide printzipioetan aplikatu beharko litzateke “berrogeialdia”?

14. Eta zergatik? ETak ere autodeterminazioa eskatzen duelako? Hala balitz, uko egin beharko litzateke beste hainbat helbururi ere: sozialismoa, marxismoa, internazionalismoa, euskal kultura, euskaraz hitz egitea, jaiak, kirol federazioak, beste herriekiko elkartasuna, demokrazia partehartzailea, bozkatu edo ez bozkatu, talde politiko batzuekin biltzea edo ez, drogaren aurkako borroka, desobedientzia zibila eta abar. Beste adibide bat: 1980an ETak Bilboko ginekologo baten aurka jo zuen, “emakumearen askapenaren alde egiteko”. Beraz, emakumearen berdintasunaren printzipioari uko egin behar diogu, bat egiten duelako ETaren helburuekin?

Memoria bakarra?

15. Irakurketa partzialei aurre egiteko, memoria “barne-hartzailea” eraiki beharko genuke, edo are konpartitua.
16. Chimamanda Adichie nobelagileak adierazi du pertsona edo herrialde bakar baten historia soilik entzunez gero, arrisku larrian gaudela: ulermen faltaren arriskuaren aurrean. Guztion historiak ezagutu behar dira. Bakarrarekin geratzen bagara, ondorioak larriak dira: herrien duintasuna lapurtu, gizakion arteko berdintasuna urratu eta gure arteko desberdintasunak azpimarratzen ditu, antzekotasunak nabarmendu beharrean.
17. Gertatutakoa azaltzeak ez du esan nahi justifikatu egiten denik. Belaunaldi batetik besterako transmisioa ondo egin behar da, gorrotoari buelta eman eta osagai positibo eta baketsu bihurtze-

“Oso itxaropentsuak iruditu zaizkit Montse Lezaunen hitzak (ETak 2009an Mallorkan eraildako Diego Salvá guardia zibilaren ama da Montse): “Hasiera-hasieratik barkatzeko erabakiak on handia egin dit. Ez dut arrangurarik, gorrotorik. Baina goizero berritu behar izaten dut erabaki hori”

ko. Oroimenak onerako balio dezala, alegia. Bakerako Hezkuntzaren planei dagokienez, osorik eta modu positiboan planteatu beharko lirateke, eta ez zatika eta modu negatiboan.

18. Historia osoaz gain, beste zerbait ere behar dugu: memoria kritikoa eta autokritikoa, pertsonala eta kolektiboa, iraganeko akatsak ez errepikatzeke.
19. Komenigarria litzateke Egiaren eta Adiskidetzaren batzorde bat osatzea.

Biktimen hierarkia?

20. Azken urteotan biktimen inguruan egin den politika publikoan kontuan hartu den irizpide nagusia egileak nortzuk diren izan da, eta ez gertakariak berak. Eta taldeak sortu eta etiketatatu egin dira. Bada garaia guztiok biktima guzti-guztiak errekonoziti ditzagun.
21. Politika horietan albo batera utzi dira ETarenak ez diren biktimak. Eta argitara ateratzen hasi direnean, “beste biktimak” ere deitu izan zaie.
22. Horretarako arrazoi bat izan daiteke ez dela sortu biktima horien berriazko elkarerik, modu antolatu batean ahotsa altxatu eta eskaerak egingo lukeenik, alegia.

“Irlandan, adibidez, loialistak eta errepublikarrak elkarrekin ari dira “Bridge of Hope” programan lanean, bi komunitateen arteko zubiak eraikitzen, etorkizun konpartituari begira, bakoitzak bere ideiei uko egin gabe, baina elkarrekin bakearen alde”

Argazki mugitua?

23. “Beste biktima” horiei buruzko politika publikoa berandu dator, biktimena, oro har, etorri zen bezalaxe. Hainbat arrazoirengatik. Beraz, tratu koherentzia behar da konfiantza berreskuratu ahal izateko. Eta horretan ez dute batera laguntzen Eusko Legebiltzarrak 2010eko abenduan onartutako txostenean egin diren zenbait gauzak: izenak ez jartzea, espetxe edo tortura kasuetara zabaldu ez izana, kategorien analisi kontestualen murrizpen eta ezabapenak, eta bortxaketan *modus operandi*-aren aipamen guztiak kentzea.

24. Argazki globala behar dugu, osoa. Urraketa eta biktima guztiak jasoko dituen. Giza eskubideen urraketa mota, kategoria eta patro guztiak adieraziko dituen. Diskriminaziorik gabekoa, politika publiko inklusiboa egin ahal izateko. Inor baztertu gabe. Biktima guztien zerrenda ofizial konpartitua behar da, eta horrekin bat egingo duen legea.

Etorkizunerako erronka

25. Esan diezaiozun bai bitzta eraikitzeari. Etorkizuna klabe positiboan ikusteko gai izango diren pertsonak behar ditugu, gure testuinguruaren aniztasun gero eta handiagoa onartuko dutenak, Euskal Herriaren proiektua nola gauzatu modu eraginkor batean pentsatuko dutenak, berdintasunez eta askatasunez bizi eta konpartituko dutenak. Erronka hor dugu: nola kudeatu desberdintasunak? Nola babestu gutxiengoaren identitatea gehiengoaren aurrean, baina eremu guztietan?

* Sabino Ormazabal Elola
Bidea Helburu taldeko kidea

Frankismoaren biktima guztiak izen-abizenekin aintzat hartzea ere eskatzen du euskal gizartearen sektore handi batek.

“Adiskidetzea zergatik da hitz gordina zenbait bakegilerentzat?”

Ipar Irlandako gatazkaren konponbidea ulertzeko zenbait gako



Kieran McEvoy*

Egilea pertsona erreferentziala da Ipar Irlandako bake prozesuan bizikidetzara egindako hurbilketan, eta “adiskidetzeak” kontzeptu gisa sortzen dituen ikuspegi kontrajarriak azaleratzen ditu ondoko artikuluan.

Duela zenbait urte IRAko preso ohi bati egin nion elkarrizketan entzun nuen lehenengoz adiskidetze terminoa “hitz gordin” gisa. Hasieran iruzkin paradoxikoa zirudien. Pertsona hori Sinn Feinen eta bake prozesuaren jarraitzaile sutua da. Hamar urte baino gehiago eman ditu “adiskidetze lana” esan ohi zaion horretan. Justizia berrezarke lanean, lege-hausle antisozialen aurkako indarkeriazko zigoren ordezkioak bilatzen nabarmendu da. Errepublikarren eta poliziako, armada britainiarreko eta talde loialistetako etsai ohien arteko integraztearen buru izan da eta IRAren indarkeriaren hainbat biktimekin bildu izan da. Ezagutzen duten ia guztiek bakearekiko duen konpromiso garbia eta benetako giza enpatia antzematen dute.

Gudulari errepublikar, loialista eta segurtasun indarretako kide ohi asko bezala, adiskidetze lan praktikoaren glamourrik gabeko “karga astunetan” engaiatuta dago –eta, hala ere, “adiskidetze” terminoa zeharo destainatu zuen–. Akademikoa naizen aldetik, teoriarik hain goxoa eta samurra dirudien zerbaiten eta hori bera, errealtatean, oinak lurrean jarrita, denaren arteko aldea oso interesgarria iruditzen zait.

Hortaz, adiskidetze lanean biziki engaiatuta daudenek zergatik arbuaitzen dute “adiskidetze” hitza? Eta nola/zergatik baztertu zuten bake prozesuaren alderdi arrakastatsuetan?

Errepublikarrek hitz hori komunitateen arteko harremanekin parekatzen dute. Komunitateen arteko harremanak gatazkaren “bi tribuetako” ikuspegia sustatzeko gobernu britainiarrak erabili eta bultzatu duen estrategiatzat jotzen dituzte, non komunitateen arteko bereizketak britainiar estatuak duen rola onartzearen bizkar indartzen baitira. Errepublikarrentzat gatazka hau hiru aldekoa zen eta estatua protagonistetako bat zen, ez berez sektarioak diren bi tribuen arteko ebazle eta bitartekari neutral edo onbera.

Gudulari loialista ohiek ere paradigma mesfidantzaz hartzen dute. Beren kezka kontzeptua kultura unionista/protestantea arazo bihurtzeko saiakera izatea da, sektarismo protestantea bakegintzaren oztopo nagusitzat jotzea. Halaber, haien ustez, adiskidetzaren ikuspegi hori langile eta gudulari ohi loialisten aurkakoa da, ez ditu eskubideak behar bezala babesten eta, berriro ere, beren britainiar

“Errepublikarrek hitz hori komunitateen arteko harremanekin parekatzen dute. Komunitateen arteko harremanak gatazkaren “bi tribuetako” ikuspegia sustatzeko gobernu britainiarrak erabili eta bultzatu duen estrategiatzat jotzen dituzte, non komunitateen arteko bereizketak britainiar estatuak duen rola onartzearen bizkar indartzen baitira”

identitatea urtzen den irudizko “ez-inoren lurraldea” sortzea bultzatzen du.

Kontzeptuak armadako eta segurtasun indarretako kide ohiak ere mintzen ditu. Zehazki, beren ustez adiskidetzeak iradokitzen duen “baliokidetasunaren mitoaren” aurka daude, haiek (beren hitzetan, estatua eta legea defendatzen ari zirenak) hiltzea eta bonbak jartzea nahita planifikatzen zuten terroristen maila moral berean jartzen omen dituelako.

Laburbilduz, aipatutako talde guztiak adiskidetze lanean ari badira ere, hainbat arrazoi medio, hitz hori arbuiazen dute. Are gehiago, gudulari ohi horien arteko gailenak. Abangoardian egon dira gidaritza politikoa (p larrian eta p xehean), komunitate gidaritza, gidaritza militarra eta gure gizarteko indarkeria kulturak aldatzeko gidaritza morala eratzeko orduan. Gizon eta emakume horietako batzuk gidari izan dira bake prozesuaren aferarik zailenak aurrera eramateko orduan. Hauek dira afera horietako batzuk:



- katolikoak eta protestanteak elkarrengandik gertu bizi diren gune kritikoetan indarkeria gainditzeko lan egitea;
- desfile beligerantei buruzko negoziazioak;
- arma paramilitarrak konfiskatzea;
- indarkeria politikoaren biktinekiko eta gudulari ohiekiko konpromisoa;
- eta lurraldea “benetan berreskuratzeko” sortzen ari den eztabaida sustatzea eta indartzea.

Hain zuzen, iraganean komunitate horien “ize-nean” indarkeria erabili dutelako, “estremista” horiek adiskidetze lana gehien behar duten langile esparruetan jarduteko sinesgarritasuna dute. Hala-ber, ziurrenik horiek dira bakegintza prozesuan arriskurik handienak hartu dituztenak, askok ez dutelako hurrengo belaunaldiak beraiek bizi izan dutena jasaterik nahi.

Lehenik, borrokalari errepublikar eta loialista ohien arteko lotura ez dago inolako “adiskidetasun” adierazpen faltsutan oinarrituta, besteen esku-bideak errespetatzea beharrezkoa dela onartzean baizik.

“Gudulari loialista ohiek ere paradigma mesfidantzaz hartzen dute. Beren kezka kontzeptua kultura unionista/protestantea arazo bihurtzeko saiakera izatea da, sektarismo protestantea bakegintzaren oztopo nagusitzat jotzea”

“Errepublikarrentzat gatazka hau hiru aldekoa zen eta estatua protagonistetako bat zen, ez berez sektarioak diren bi tribuen arteko ebazle eta bitartekari neutral edo onbera”





David Ervine unionista eta Danny Devenney errepublikar muralistek elkarrekin eginiko murala da ezkerrekoa (Picassoren *Guernica*), Belfasteko Falls etorbideko "nazioarteko paretan".

Bigarrenik, interakzio hori ez dago identitate politikoa ukatzeko edo nolanhiko "erdibideko" identitate artifiziala soilik itxuraz onartzeko behar-rean oinarrituta. Beren identitateaz ziur daudenek iraganeko etsaiekin engaiatzeko duten ahalmenean oinarritzen da. Alegia, erabat bidezkoa da errepublikarra edo loialista izatea, baina identitate hori baieztatzeko elkar hil gabe.

Hirugarrenik, harreman horiek benetako aferen, hala nola desfileen edo istiluen konponbidearen inguruan eraikita daude, eta ez aurreiritziz betetako eta ikuspegiarik gabeko ikerketen inguruan.

Laugarrenik, gudulari loialista nahiz errepublikar ohiak estatuaren boterearen, rolaen eta erantzukizunaren jakitun dira; ederki dakite estatua protagonista dela eta estatuaren bermea ziurtatzeko mekanismo eraginkorrek behar direla.

Hauek dira benetako adiskidetzeara erakitzeko adreiluak. "Muturren" irakaspen hauen eta beste batzuen bidez, adiskidetzeara "hitz gordina" "eskuza-baltasun politikozko" lengoiaia bihur dezakegu.

* Kieran McEvoy

Zuzenbide eta Trantsizioko Justizia irakaslea
Belfasteko Queens Unibertsitatean eta zuzendari
ohia Kriminologia eta Justizia Penaleko Institutuan.

LARRUN pentsamendu aldizkaria **ARGI**arekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:** la-

rrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP
SCOOP.

(ARGIAko 2.262. zenbakiarekin banatua, 2011ko urtarrilaren 30ean)